



Neska altxa ta dantza

Badira 10 urte inguru Ermuko neska gazteak euren aldarrikapenak gizarteratzen hasi zirenetik, eta 10 urte pasa badira ere, badago oraindik neska eta mutilen arteko berdintasunaren alde lan egiteko

behar handia. NUSHU taldeak Eraso Sexisten Aurkako Jardunaldiak antolatu ditu, eta talde bera hobeto ezagutu asmoz biltzen diren Zuloa Kultur Elkartera hurbildu gara.

DROGETENITTURRI- ZER DA NUSHU ETA ZERGATIK ELKARTZEN ZARETE?

NUSHU- Neska gazteok osatutako kolektibo feminista bat gara. Neska gazteok hainbat arlotan pairatzen dugun egoeraz eztabaidatzeko elkartzen gara, gure gune propioa sortuz, sexualitatean, hizkuntzan, lanean eta hainbat arlotan jasaten dugun diskriminazioa salatzeke, gure eskubideak aldarrikatu nahian.

D.- ZER PENTSATZEN DUZUE NESKEN BOBROKARI EMATEN ZAION GARRANTZIARI BURUZ?

N.- Benetako inplikaziorik ez dagoela uste dugu. Askoren ahotan "gaur egun berdintasunean bizi gara" entzun ohi dugu, baina kaleko erreallitateak aurkakoa adierazten jarraitzen du. Oraindik bai neskok bai mutilak ere lan handia egin behar dugu.

Kolektiboen aldetik ere inplikazio eskasa dago. Gu adibidez beste taldeen gaitan askoz gehiago inplikatzeko gara, baina beraiek "neskon mugida" bigarren mailakotzat jotzen dute.

D.- ZE NOLAKO HARREMANAK DITUZUE ERMUKO ZEIN EUSKAL HERRIKO EMAKUME KOLEKTIBOENKIN?

N.- Orain dela hiru urteko Euskal Herriko Jardunaldi Feministetan Emakume Gazteen Koordinakundea sortu zen, eta 1995ean, Barrian Euskal Herriko Emakume Gazteen II. Topaketak ospatu ziren.

Aipatutako hau oso esperientzia ona izan zen, han bildu ginen emakume guztiontzat, eta horrezkerotik

hainbat herritan gure lana koordinatzen jarraitu dugu. Horrekin jarraitzeko asmoa dugu, oso positiboa delako beste talde feministekin eztabaidatzeko aukera izatea; elkartasuna adierazten du.

N.- Gure helburua eraso sexistei buruzko eztabaida kaleratzea izan da, egunero jasotzen ditugula salatuz.

Eraso sexistak ez dira jipioak edota bortxaketak bakarrik, hauek



NUSHU beste herrietako talde feminista batzuekin elkarlanean ibili ohi da.

Ermuan mugimendu piloa dago, eta emakumeek ere talde ezberdin eta ugari osatzen dute. Guk batez ere Emakume Asanbladarekin egiten dugu lan; adibidez, orain dela lau urte sexu informazio bulego bat zabaldu genuenean, eta pasa den hilean eraso sexisten aurkako jardunaldien barnean ekintza batzuk elkarrekin egin genituen.

D.- ZEIN IZAN DA JARDUNALDIEN HELBURUA?

hezkuntzan, hizkuntzan eta baita musikan ere gertatzen dira. Horregatik, egun horietan musika sexistaren aurkako zinta bat kaleratu dugu, "Neska altxa ta dantza" izenarekin.

Azken finean, kaleratu nahi izan dugun mezua eraso sexistak ez direla arazo pertsonalak, arazo politiko-sozialak baizik, izan da.

D.- ZEIN DA EKINTZAREN BALORAPENA?

AHOLKULARITZA FISKAL eta LEGALA
URIARTE IRAEGUI, S.L.

Valdespinako Markesa, 14 - behea
Telefonoa: 17 33 87 • 48260 ERMUA (Bizkaia)

ZABALA
BURDINDENDA

ETXE HORNIDURA
BRIKOLAJEA
OPARIK
ELEKTRIZITATEA
Zubiaurre, 27
Tfnoa. 17 09 17



Hemen adibidez, Deustuko talde batekin ageri dira.

N.- OROKORREAN BALORAZIOA OSO BAIKORRA DA, NAHIZ ETA EKITALDI BATZUETAN PARTEHARTZE ESKASA IZAN.

Azpimarragarriak dira esaterako, kalean egindako sexu-erasoen simulakroak; hauekin jendearen erantzuna ze nolakoa izan daitekeen ikusi nahi genuen, eraso guztien aurrean erantzun soziala egon behar duela uste dugulako; behintzat, mezu hori zabaldu nahian egin genuen.

Egindako beste ekitaldi batzuetan jende asko elkartu ginen; horregatik jarraitzea erabaki dugu, sexu-erasoen gaia oso zabala delako, eta gauza piloa solte geratu direlako.

D.- ZEIN IZANGO DA ETORKIZUNEAN TALDEAREN LANA?

N.- Helburu nagusia berdintasunean oinarritutako gizartea lortzea da, ez da oraindik lortu, eta lortu arte lanean jarraituko dugu.

Gure lanak orainarte bezala bideratuta jarraituko du, gehien bat baztertze egoerak, erasoak eta abar salatuz.

D.- BITXIKERI GISA, ZER ESAN NAHI DU NUSHU HITZAK?

N.- Aintzinean, eta mende askotan zehar, Txinako herri batzuetako emakumeek hizkera propio bat erabiltzen zuten, hizkera hau gizonezkoentzako ulertezina zela. NUSHU da hizkuntza horren izena.

D.- HIZKUNTZEZ ARI GARENEZ, ZUEN FUNTZIONAMENDUAN EUSKARA ERABILTZEN AL DUZUE?

N.- Barne funtzionamenduan gero eta gehiago erabiltzen dugu, taldean denok baitakigu. Batez ere, euskaldun berriak izaten dira euskarari indarra ematen diotenak.

Kaleratutako guztia euskaraz eta erderaz egiten saiatzen gara, eta askotan euskaraz bakarrik ere aterratzen dugu.

D.- AMAITZEKO, ZERBAIT GEHIAGO GEHITU NAHI DUZUE?

N.- Gogoraraztea hizkuntza eta eraso sexistei buruzko dohaineko fanzinea kalean dagoela, eta baita kamisetak eta "sudadera"k ere, Infreñu tabernan eta Zuloa Kultur Elkartearen salgai.

Mireia Arginzoniz



- LENGOAIA MUSIKALA
- PIANOA
- AKORDEOIA
- FLAUTA
- KLARINETEA
- SAXOFOIA
- TRONPETA
- TRIKITIXA
- KOROA

ezkontzetan kantatzen dugu



**FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISSETATAN**

K/ Komentukua, 6 behea
48260 ERMUA
TEL. / FAX (943) 17 42 89

IZARRA Garraioak



Valdespinako Markesa, 5 - 1.a
☎ 943- 17 01 01 • ERMUA

OUTUMURO KAFETEGIA

- KAFE BEREZIAK
- TARTA NATURALAK
- AUKERA HAUNDIA TE ETA INFUSIOETAN
- Astelehenetik ostiralera 9etan zabaltzen dugu